

# PROBA ESPEZIFIKOA

2016ko PROBA

**GEOGRAFIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2016ko MAIATZA  
GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2016  
GEOGRAFÍA

**1.- Egin ezazu irudi honi buruzko iruzkin bat (2,5 puntu)**



**2.- Hauta eta gara ezazu bi gai hauetako bat. (3 puntu)**

- A. Iberiar penintsulako erliebe-unitateak: sakonune nagusiak.
- B. Euskadiko hiri-sistemaren hierarkizazioa.

**3.- Defini itzazu kontzeptu hauek: (hauta itzazu 3) (Guztira, 1,5 puntu)**

- 1. Biztanle-dentsitatea
- 2. Planisferioa
- 3. Profil topografikoa
- 4. Arro hidrografikoa
- 5. Nekazari-exodoa
- 6. NPE (Nekazaritza Politika Erkidea)



4.- Egin ezazu iruzkin bat A, B eta C puntuei dagozkien klima-datuei buruz, elkarrekin konparatuz, eta adierazi zer klima-zona dagokion puntu horietako bakoitzari. (3 puntu)

A

	urt.	ots.	mar.	api.	mai.	eka.	uzt.	abu.	ira.	urr.	aza.	abe.	Urtekoa
T (°C)	6,7	7,2	8,3	10,9	13,3	16,2	17,9	18,1	16,3	12,8	9,3	7,2	12,02
Prezip. (mm)	84	75	57	54	49	51	53	54	78	91	96	82	824

B

	urt.	ots.	mar.	api.	mai.	eka.	uzt.	abu.	ira.	urr.	aza.	abe.	Urtekoa
T (°C)	9,3	9,9	11,3	15,3	20	24,6	27,6	27,4	23,5	19	14,7	11	17,8
Prezip. (mm)	62	36	38	23	23	14	6	7	15	51	56	71	402

C

	urt.	ots.	mar.	api.	mai.	eka.	uzt.	abu.	ira.	urr.	aza.	abe.	Urtekoa
T (°C)	-9,9	-9,5	-4,2	4,7	11,9	16,8	19	17,1	11,2	4,5	-1,9	-6,8	4,4
Prezip. (mm)	31	28	33	35	52	67	74	74	58	51	36	36	575



- **KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

- **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea, lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta era ordenatu batean erantzuten die galderei.
- Zuzen interpretatzen ditu irudiak, mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.

### **GALDEKIZUNEN ETA CURRÍCULUMAREN ARTEKO LOTURA**

GALDEKIZUNA	BLOKEAK
1	1. blokea
2A	4. blokea
2B	2. blokea
3	1-5 blokeak
4	5. blokea

- **EBAZPEN ORIENTAGARRIA**

1.- Irudiak parke teknologiko bati dagokion paisaia industrial bat erakusten du. Kasu honetan, Zamudiokoa da (Bizkaia), 1985ean egina eta Eusko Jaurlaritzak bultzatua. Parke teknologikoen helburua dibertsifikazio industrialaren sustatzea da, bai eta teknologiaren eta berrikuntzaren transferentzia eta hedapena sustatzea ere. Teknologia aurreratuko eta ikerketako enpresak ezartzen dira parke horietan. Ezaugarri hauek izaten dituzte: irisgarritasun ona, ingurumen-kalitate oneko ingurunea, unibertsitate-zentroetatik hurbil egotea, etab.

2 A. Iberiar penintsulako erliebe-unitateak: sakonune nagusiak.

1. Ebroren sakonunea.

Lautada tertziario bat da, triangelu-formakoa, Pirinioen, Iberiar sistemaren eta Kataluniako kostako mendikatearen artean kokatua. Ebro ibaia Kantauriar mendikatetik dator, eta Pirinioek eta Iberiar sistemak ematen dizkiote ibaiadar nagusiak. Ibai-arro garrantzitsu bat eratzen du, eta baditu zona endorreiko batzuk ere. Gaur egungo erliebean, hiru parte bereizi nabari dira: Erdialdea, Mendebaldea eta Ekialdea.

2. Guadalquivirren sakonunea.

Lautada triangeluar bat da, Mendikate Betikoaren eta Sierra Morenaren artean. Izena eman dion ibaiak zeharkatuta dago, eta Atlantikorantz irekia dago; han du zabalerarik handiena (335 km). Tertziarioaren erdialdean itsas beso bat zen,



Atlantikoa eta Mediterranea lotzen zituena. Alderik beherenetan ibai-metakinak metatuz joan dira; horregatik, bokalean kontinenteak aurrera egin du etengabe Kuaternarioan.

Beste sakonune batzuk:

- Dueroren sakonunea
- Tajoren sakonunea
- Gudianaren sakonunea

2 B. Euskadiko hiri-sistemaren hierarkizazioa.

Euskadiko hiri-sistemaren banaketa espaziala desorekatuta dago, eta garapen ekonomikoaren zenbait prozesuren ondorioa da. Biztanle gehienak isurialde atlantikoan bizi dira. Zona atlantikoan, industrializazioa lehenago hasi zen, eta indartsuagoa izan zen. Hegoaldean beranduago hasi zen, eta hiri-garapena erregularragoa eta antolatuagoa izan zen. Kantauriar kosta osoa hiri-eremu jarraitu bat da, barnealderantz gero eta dentsitate txikiagoa duena. Araban, populazioa hiriburuan kontzentratuta dago.

3.- Defini itzazu kontzeptu hauek:

1. Biztanle-dentsitatea

Biztanle-dentsitateak adierazten du zer erlazio dagoen toki bateko biztanleen eta hartzen duten espazioaren artean. Kalkulatzeko, lurralde bateko biztanle kopurua lurralde horretako azaleraz zatitzen da, eta kilometro karratuko biztanletan adierazten da (bizt./km<sup>2</sup>).

2. Planisferioa

Planisferio hitzaren bidez, zero-esfera edo Lurraren esfera plano batean irudikatzen duen mapa bat deskribatu eta identifikatzen da.

Lur-planisferioa eta zero-planisferioa bereizten dira. Lur-planisferioa edo mapamundia gure planetaren, Lurraren, gainazalean oinarritutako irudikapen kartografiko bat da. Mapa horrek plano baten gainean erreproduzitzen du, eskalan, lur-esferaren proiektzio geografiko bat.

3. Profil topografikoa

Profil topografiko edo ebaki topografiko bat lur-eremu baten erliebearen irudikapen bat da, sestra-kurben mapa baten –mapa topografiko baten– lerroak zeharka ebakiz lortua. Sestra-kurba bakoitza lerro itxi bat da, itsasoaren mailaren gainean altuera berean dauden erliebeko puntu guztiak batzen dituen. Maparen eskala horizontal berean marraztu ohi da, baina komeni da eskala bertikal nabarmendu edo handitu bat erabiltzea erliebearen elementuak azpimarratzeko. Lurraren erliebearen inklinazioaren eta anplitudearen arabera alda daiteke eskala hori, baina eskala horizontala baino hiru eta bost bider artean handiagoa izaten da. Mapa batean tarte erregularretan hartutako profil paraleloen sorta bat



konbinaturik erabil daiteke mapa topografikoan ageri den eremuaren hiru dimentsioko ikuspegi osoago bat lortzeko.

#### 4. Arro hidrografikoa

Arroa sakonune edo forma geometriko bat da, itsasoaren mailara hurbildu ahala lurraldeak altuera galtzea eragiten duena. Arro hidrografikoetan, mendietatik edo urtzaldetik datorren ura itsasora iritsi arte jaisten da sakonunean zehar.

Zenbaitetan, arroa ezin da itsasoaren mailara iritsi mendiz inguratutako haran bat baldin bada. Kasu horretan, akuifero-formazioa urmael bat edo aintzira bat izango da. Bi arro hidrografiko mota nagusi daude: arro endorreikoak, itsasora iristen ez direnak, eta ondorio gisa ur geldiak eratzea dakartenak (adibidez, aintzirak edo urmaelak); eta arro exorreikoak, itsasora iristen direnak eta, beraz, mendi multzoen artean harrapatuta gelditzen ez direnak. Arroek, endorreikoak zein exorreikoak izan, ibaiadar asko sor ditzakete, eta denak ur-ibilgu nagusira doaz, hau da, itsasora, ozeanora, aintzirara edo urmaelara.

#### 5. Nekazari-exodoa

Nekazari-exodoa edo nekazari-irteera landa-eremutik hirirako emigrazioa da, gehienbat jende gaztearena (nerabeak eta heldu gazteak). Oso prozesu zaharra da; Industria Iraultzarekin batera areagotu zen, eta, batez ere, XX. mendeko bigarren erdialdeaz geroztik. Migrazio mota berezitat jotzen da, zeren eta, bizilekua aldatzeaz gainera, lanbidea ere aldatzen baita. Eta arrazoiak begibistakoak dira, desberdintasun geografiko oso handiak baitaude landa-eremuaren eta hiriaren artean lanbide mota, kopuru eta -ezaugarriei dagokienez, hiriko bizimoduak dakartzan gizarte-, kultura- eta ingurumen-aldaketez gainera.

#### 6. NPE (Nekazaritza Politika Erkidea)

NPE Nekazaritza Politika Erkidearen sigla da: Europar Batasunaren politikarik garrantzitsuenetako bat da, eta haren sistema instituzionalaren funtsezko elementuetako bat. 1950eko hamarkadan sortu zen NPE. Orduan, Mendebaldeko Europan, populazioa gerra-urteen ondorioak jasaten ari zen, nekazaritza geldituta zegoen eta elikagai-hornidura ez zegoen bermatuta. Lehen NPE haren helburu nagusia nekazaritza-produktibitatearen hobekuntza sustatzea izan zen, kontsumitzaileek elikagai-hornidura egonkorra izan zezaten prezio eskuragarrietan, eta Europar Batasunak nekazaritza-sektore bideragarri bat zuela bermatzeko.

Nekazariari prezio handiak ziurtatzen zizkien diru-laguntzak eta sistemak eskaintzen zituen NPEk, eta pizgarriak ematen zituen gehiago ekoitz zezaten. Bide horretan, finantza-laguntza ematen zuen nekazaritza berregituratzeko; adibidez, nekazaritza-inbertsioetarako sorospenak ematen zituen, ustategien hazkundeari eta ezagutza teknologikoen kudeaketari laguntzeko, garai hartako baldintza sozioekonomikoetara egokitzearen. Erretiro aurreraturako, lanbide-heziketarako eta eskualde behartsuetarako laguntza-neurri batzuk hartu ziren.



4.- Hiru laukietako bakoitzean ageri diren datuek urte batean zeharreko tenperaturak eta prezipitazioak adierazten dituzte. Haien bidez, haietako bakoitzari dagokion klimaren ezaugarriak ikus daitezke.

Lehen kasua Frantziako Brest hiriari dagokio. Ikus daiteken bezala, prezipitazioak ugariak dira, eta urte osoan zehar banatuta daude. Tenperaturak, bestalde, goxoak dira urtean zehar, eta udan ez da igoera nabarmenik gertatzen. Beraz, ez dago urtaro lehorrik. Ezaugarri horiek klima ozeanikoari dagozkio.

Bigarren kasua desberdina da, urtean zehar prezipitazio gutxi baitago. Gainera, urtaro lehor bat dago udan, batez ere uztailean eta abuztuan. Tenperaturen batezbestekoa handia da urtean zehar, eta igoera nabarmena du uztailean eta abuztuan. Ezaugarri horiek klima tipikoki mediterraneoari dagozkio.

Hirugarren kasuak ez du zer ikusirik aurrekoekin. Tenperaturak baxuak dira urte osoan zehar, batez ere neguan; minimoak zeropekoak dira. Udan, nabarmen igotzen dira, eta altuak dira uztailean eta abuztuan. Prezipitazioak urte osoan izaten dira; handiagoak dira udako hilabeteetan, baina kontuan izan behar da neguko prezipitazioa elurra izaten dela. Ezaugarri horiek klima tipikoki kontinentalari dagozkio.

Hiru klimen arteko aldeak nabariak dira tenperaturari eta plubiositateari dagokienez, eta eragina dute beste faktore askotan, hala nola zona bakoitzeko landaredian, floran eta faunan, bai eta ekonomia-eta gizarte-jarduera motetan ere.

Aztertutako hiru puntuak klima-zona epelaren barnean daude.